

Bolivar eta Espainia

Deia, 1983-07-21.

Ba dira ulergarri ez diren gauzak, eta horietako bat, Espainiak Bolivar-enganako sentitzen duen bat-bateko mirespen handi eta *betikoa*.

Orain hil zela mende eta erdi pasiak (1830) direnean.

Martí eta Rizal-engatik sentitzen duten berbera.

Nik esan nahi dutanaren exenplua: orain arte ez zen munduan zehar zabalduak dauden laurogeitaka *Sociedad Bolivariana* izeneko instituzioen artean Madrilekoa agertzen, eta orain, okasiorako, presaka samar sortu berria ba dute Bolivar jaio zenetik Bigarren Mendeurrena mundu osoan eratuko diren ospakizunetarako apropos.

Espainiako buru den hiria Caracasen falta ez dadin.

Ez dakit ikuspuntu honen irakurleen artean eskola garaian Historiaz ari zitzazkigunean Simon Bolivarren aipamen maitagarriarik entzun zuen norbait baden.

Gerra Zibilaren garaian ere, bataloiak bataiatzerakoan, izan zen euskalduna zen norbaitek haren oroigarri jarritako: "Bolibar" bataloia; eta ez dakit Espainiakoen artean, naiz zuri naiz gorri, honelakorik gertatu zen. Bestalde, beti kontu handiz gaiak ukitzen dakien *El País* kazetak berak ere ba du kritikagarri den zerbait: Uztailak 17, igandean, argitaratu duen asterokoan, bere eginbeharra nolabait justifikatu behar zuen Luis Yáñez-Barnuevo jaunak, Instituto de Cooperación Iberoamericana-ko lehendakariak, leku gutxin lan handia egin du, 46 lerro laburretan hiru puntu huxek aipatzen ditu: 1) "Hablar de la vigencia de Bolívar sin referirse a España presentaría un escenario incompleto". Gaizki idatzia badago ere, igertzen zaio funtzionariari nekea eta esangura, eta halaxe da, Bolivarren obsesioa haxe baitzen: Espainiak diruz eta armaz bultzata milaka gizon bere atzetik bota zizkion (orduan "insurrecto", "criminal" baitzen) lorik egiteko beterik ere eman gabe. 2) "Si queréis hallar la fuente vital de Bolívar, la encontraréis en España, porque Bolívar es español hasta lo hondo de su alma, como Ruiz Díaz, como Cortés, como Pizarro". Parregarri dirudi, baina Venezuelan ez diote ateraldi honi parririk egingo. 3) "Fue en Madrid, bebiendo en las fuentes de los ilustrados, especialmente el marqués de Ustaritz, donde adquiere Bolívar su talante liberal". Madrilen, dio; ez hiriko Liburutegiren batetan, Ustaritzeko Markesaren etxean baino!; noski, hor ilunpean zegoen Penintsula Ilustrazioa nola sartu zen eta nondik nora ibili zenaz ez dakienak sines lezake Madrilek partetik honetan izan zuen.

Honek adierazten duena da, Espainiako gobernu eta inguruan dabilta batzu egiten ari diren axaleko politikakeria hau zein ahula den; bai Bolivar-en, eta, bidenabar. Askatasunaren zentzuaz ere; ahula eta oportunistak.

Gure herriarekin gaur bertan darabiltena lekuko.